



Aurkibidea

5

Aurkezpena

6

Jarduerak

20

Erabiltzaileak

24

Zerbitzuak

29

Komunikazioa

34

Balorazioa



Aurkezpena



ZUMALAKARREGI MUSEOA

Aurkezpena

1989an ireki zenetik, museoa pixkanaka aldatuz joan da, inguruneko aldaketetara eta sektorearen eta herritarren behar berrietara egokituz. Azken urteotan museoaren diskurtsoa aberastuz joan da ikuspegi berriekin, narrazio historikoaz haratago balio unibertsalei buruzko hausnarketa berriak proposatzen dituzten gaietara irekiz, hala nola bakea, bizikidetza, aniztasuna, lankidetza, eta abar. Diskurtso horiek, era berean, beste diziplina batzuei lotutako programa eta ekintza berriak sortu dituzte, dimentsio garaikide batetik.

Horren guztiaren ondorioz, gaur egun museoa Goierri eskualdeko eta Ormaiztegiako funtsezko kultura-eragile gisa kokatzen da. Urteko kultur programazio egonkorra eta etengabeko berrikuntzan oinarritutako egiteko moduak sendotu ditu, bere jarduerak tokiko eta eskualdeko erakunde eta elkarteekin lotuz, egunero museoa inguratzen eta sustatzen duten herritarrengana hurbilduz.



Jarduerak



Datu orokorrak

Honakoak dira 2025ean egin ditugun jardueren buruzko datu orokorrak:

3

Aldi baterako erakusketa

19

Helduei zuzendutako tailerrak eta jarduerak

23

Haurrentzako eta familientzako tailerrak

121

Bisita gidatu

Kultur programazioa

Aurtengo lehen aldi baterako erakusketa "Artxibo praktikak" proiektuari lotuta egon da. Izan ere, Pedro G. Romero artistak gure artxiboan aurkitutako materialarekin "flamenkoari" buruzko erakusketa egiteko proposamena egin baizigun. Hurrengoa Gipuzkoari buruzkoa izan da, lurraldearen osatzea XIX. mendean. Ohikoak ditugun kultur jardueraz gainera hiru liburuen aurkezpenak egin ditugu: Eugenio Ibarzabalen "Muñagorri, el conde y las condesas"; Pedro G. Romeroren "D de deuda" eta Javier Maritxalarren "Catálogo de cartografía de Gipuzkoa". Besteak beste, nabarmentzekoa da XIX. mendeko Gipuzkoa beste modu batean ezagutarazteko antolatu dugun "Bertso hitzaldia", Aratz Igartzabal bertsolariaren laguntzaz.

Aldi baterako erakusketak



"Scénario. Zorraren Z". Pedro G. Romero

"Artxibo praktikak" programa gure artxiboari begirada berriak ematean datza. Gonbidatutako lehen artista **Pedro G. Romero** (Arte Plastikoen 2024ko Sari Nazionala) izan da. **Scénario. ZORRAREN Z** aldi baterako erakusketa aurkeztuz.

2025/02/21-2025/04/22



469

Bisitari



Gipuzkoa behin betiko: lurraldea XIX. mendean

"Ipuscua", lehenengo aldiz dokumentu batean agertu zenetik mila urte betetzen ditugun honetan, lurraldea osatu eta bermatu zen XIX. mendea aztertzen dugu bibliografia, kartografia eta ikonografia atalen bidez.

2025/06/25-2026/03/22



906

Bisitari

Aldi baterako erakusketei lotutako ekintzak



"Scénario. Zorraren z" Liburu aurkezpena

Argitalpenak artistak museoaren "Artxibo praktikak" ekimenaren barruan egin duen erakusketaren edukia jasotzen du.
2025-05-08



Gipuzkoa. Hitzaldia

Koen Van Driessche geologoarekin "Gipuzkoako mapa geologikorantz joanez" hitzaldia eskaini zuen museoan bertan.
2025-09-23



Gipuzkoa. Txangoa

Koen Van Driessche geologoarekin "Gure paisaiak Gabiriatik ikusita eta interpretatuta" txango geologikoa dinamizatu.
2025-09-26



Gipuzkoa. Bertso-hitzaldia

Iñaki Rezusta trikitilariak ipinitako musikarekin Aratz Igartzabal bertsolariak XIX. mendeko bertsoak kantatu zituen Mikel Alberdik testuingurua azaldu zuen bitartean. 2025-11-06



Gipuzkoa. Liburu aurkezpena

Javier Maritxalar historialariak egindako "Gipuzkoako kartografiaren katalogoa 1529-1936" argitalpenaren aurkezpena.
2025-11-12



MusealiaK gunea

Proiektu honek ondarearen profesionalek egiten dugun lana ikustaraztea du helburu, museoetako bildumak gizarteratzea. Ondare kolektiboa gizarteratzea sustatu eta kultur ondarea kontserbatzea denon ardura dela azaltzea. Aldi berean, gizartearen kohesioa indartzeko oinarritzkoa den identitatearen elementu nagusietakoa dugun kultur ondarea zabaltzea dugu helburu.



"Zumalacárregui"

Egilea, Antonio Valverde
"Ayalde". Kutxa Fundazioa
bilduma.
2024-12-12 / 2025-05-21



Karlistaldiak diorametan

Jose Ignacio Ortega Villar
(1956-2024), museoko
lagunak sustatua, Biosca
miniaturagileak eginak. 2025-
05-29 // 2025-10-10



Uniforme karlista baten erreprodukzioa

Jose Mari TUDURI zinegileak
dohaintzan emandakoa. Bere
eta beste zinemagileren
hainbat filmetan erabilitakoa.
2025-10-11 // 2026-01-20



Bestelako jarduerak.



Ondarearen Europako Jardunaldiak (OEJ)

Iriarte erdikoa: baserritik museora. Solasaldia + Bisita komentatua Ibon Telleria arkitekturekin eta Josue Susperregi arkitekturekin.
2025-10-05



Tertulia

Eugenio Ibarzabalen
"Muñagorri, el conde y las condesas" liburuaren aurkezpena egilearekin.

2025-04-02



Bestelako jarduerak. Elkarlanak



Ombuaren itzala

Pello Mari Otañoren bizitzaren bidez XIX. mendeko gizartearen azterketa, euskal emigrazioa, bertsolaritza eta garaiko euskal kultura eragutzeko aproposa. ZM eta , Eguzki art zinema

2025-01-24



Martxoaren 8, "Elkar ezagutuz"

Pankrazia de Olla y de la Mata, Tomas Zumalakarregiren emazteari buruz solasaldia. ZM, Ormaiztegi udala, Ormaiztegi jubilatuz elkartea

2025-03-08



7. Kultura arteko festa Ormaiztegin

Antolakuntzan 6 herrialdeek, autonomi erkidego batek eta Euskal Herriak ere parte hartu zuten herriko aberastasun multikulturalaren zati bat erakutsi zuen. 2025-06-15



Mutiloa-Ormaiztegi bide berdearen XVII. Eguna.

Clara Gutierrez biologoak eta etnobotanikak dinamizatutako ibilaldi gidatua eta gastronomia-tailerra. ZM, Ormaiztegi udala, Mutiloako Udala, Goitur, Bide Berdeak Fundazioa

2025-05-11



XIX. mendeko eleganteen bilkura. XII. edizioa

Desagertutako Ormaiztegi bainuetxearen memoria gogorazteko helburuarekin antolatuta. ZM, Ormaiztegi udala, Ormaiztegi Gazte Asanblada eta Ander deunaren parrokia.

2025-11-22



Museoa kanpoan

- Eragin elkarte, Donostia: "Revistas satíricas en el siglo XIX."
- Eibarko Esperientzia eskola: "El siglo XIX en Euskal Herria".
- Zelaiburu jubilatuz, Irun: "Guiñi, caudillo de salteadores."
- Aieteko Kultur etxea: Egile ikastaroa: "Karlismak E.H.n: mitoak eta irakurketa historikoak."



Hezkuntza programa

Hezkuntza-programak XIX. mendeko historiara, Gerra Karlistetara eta haien testuingurura modu ludiko eta sortzaile batean hurbiltzea proposatzen du. Bisitatzen gaituzten taldeen adin desberdinetara egokitutako bisita eta tailerren bidez, hemeretzigarren mendeko historia gaur egungo errealitatera hurbiltzen saiatzen gara.

Gure eskaintza hainbat adinetako publikoetara egokitzen diren ibilbide didaktikoek osatzen dute:

- Iraultza garaia (DBH eta Batxilergoa: Helduentza eskaintza)
- Gerra eta bakea (DBH eta Batxilergoa; Helduentzako eskaintza)
- Zumalakarregi anaiak: Jeneral karlista eta politikari liberala (DBH eta Batxilergoa; Helduentzako eskaintza)
- Emakumeak Zumalakarregi museoan (LH 4, 5 eta 6; Familientzako eskaintza)
- Zumalakarregi museoaren Haur ibilbidea (LH1, 2, 3 eta 4; Familientzako eskaintza)

20 Talde

358 Ikasle

Hezkuntza programa

Andres Herri Eskola. Ormaiztegi

Zumalakarregi museoak, 1989an inauguratu zenetik, benetako interesa izan du San Andres herri eskolarekin batera sorkuntzan eta ikaskuntzan parte hartzeko. Elkarlaneko jardueren diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan elkar inplikaturik eta era berean ezagutzak, baliabideak eta ikuspegiak partekatuz. Maila desberdinetako ikaslentzako eskaintza berezia eskaintzen dugu.



Guztiok gara migratzaile

Ormaiztegiko San Andres eskolako LH6eko ikasleekin burututako tailerra.
2024-2025 ikasturtea



Ondarea tailerra eta "Gure Ondarea" erakusketa

Ormaiztegiko San Andres eskolako LH5eko ikasleekin burututako jardura da.
2025 ekaina



Dastatu Ezkurdia ostaturiko ondarea

Ormaiztegiko San Andres eskolako Haur Hezkuntza 1 eta 2 burututako belaunaldien arteko tailerra.
2025-11-20



Ormaiztegi sortzen eskuekin

Ormaiztegiko San Andres eskolako Haur Hezkuntza 1 eta 2 burututako tailerra.
2025-06-25

Familia tailerrak



Emakumeak Scénario erakusketan

Emakumeak "Scénario. Zorraren Z" erakusketan nola irudikatzen ziren aztertu genuen



Tomas Zumalakarregiren erretratua erreproduzitzen

MusealiaK gunean ikusgai zegoen Tomasen erretratua aztertu genuen bakoitzak bere bertsioa margotuz



Iraganeko detektibeak: Gure artxiboa sortzen

"Scénario: Zorraren Z" erakusketan ikusgai zeuden dokumentuak eta irudiekin gure artxiboa sortu genuen



XIX. mendeko Gipuzkoa osatzen

"Gipuzkoa behin betiko" erakusketan dauden lurraldeko irudiekin mapa berezi bat osatu genuen



Buruarinen tailerra

Gorka Olazabal eta Oihane Aristegi artisten eskutik, karlisten eta liberalen buruarinak egin genituen



XIX. mendeko moda ebakigarriekin

XIX. mendeko eleganteen bilkara osatzen duen haurrentzako tailerra



Haurrentzako tailer gehigarriak



Gabonetako tailerra

Gabonetako postalak XIX. mendean



Udalekuak

Museoko MusealiaK gunean aurkeztutako dioramak erreferentziatzat hartuta, buztina erabiliz irudikapen bat birsortzea.



Pazko asteko tailerrak

- "Karlismak Scénario erakusketa"
- "XIX. mendeko janzkera"



Lankidetza sarea

Lehendik dauden sareak indartzen jarraitzen dugu, eta konplizitate eta lotura berriak ezartzen dira epe luzera beste eragile kultural batzuekin, estatuan eta nazioartean, ikerketetan, koprodukzioetan, lankidetzetan, proiektuetan eta jardueretan islatzen direnak.

Era berean, tokiko komunitateekiko harremanak indartzen dira, museoaren zeregin soziala sustatuz, hurbileko gune gisa, lurraldearen aurrerabide sozial eta kulturalaren bultzatzaile gisa.



Ormaiztegiko udala. Gertu kultura. Zineforuma

Gertu Kultura Gipuzkoa sare inklusiboak antolatuta, Ormaiztegiko udala, Ormaiztegiko jubilatutako elkarte eta Ados teatroarekin elkarlanean, "Hautatu gabeko bakardadea" irizpidea hartuta, Giza filmoteka Zineforumean parte hartzea. Ormaiztegiko udala eta ZM 2025-10-21



Ormaiztegiko udala. Hizketaldia emakume artean

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, azken urteetan erretiroa hartu duten eta tokiko merkataritzarekin zerikusia duten emakumeei omenaldia. Ormaiztegiko udala, Ormaiztegiko emakume sarea eta ZM. 2025-03-14



Ormaiztegiko udala

Urteko ekitaldietan laguntzea, hala nola Ormaiztegiko kultur arteko festan, eta udalerriko kultur eskaintza osoaren programazio, diseinu eta ekoizpen osoan.



Ormaiztegiko udala

Trenzubiaren seinalatika berritzea. Edukien aukeraketa, diseinu, ekoizpena eta muntaiaren koordinazioa 2025-12



Ormaiztegi San Andres eskolako guraso elkarteak

- "Buruarinen tailerra
- San Andres festetako pregoilarien bidea buruarinekin antolaketa
- Umeen tanborradarako uniforme karlisten erreproduzioen mailegua



Ormaiztegi elkarteak

Herriko elkarteak sarearekin lankidetzak

- Ormaiztegiko Oin-harrika jubilatue elkarteak
- Baso Txulo elkarteak
- Ormaiztegiko Gazte Asanblada
- Ander Deunaren parrokiak
- Urteroko ekintzen parte-hartzaileen taldeak



Goitur (Goierriko garapen turistikorako agentzia). Partaidetza

Eskualdeko turismo-mahaiko hiru hilean behingo bileretako kide izatea
Formakuntza. Kalitatearekin lotutako programen babesa eta aholkularitza.
Museoko promozioa.



Gertu kultura. Formakuntza

Museoko eskaintza web-gunearen bidez.

Formakuntza:

- Elkarteguneak 2 # topaketa Bergara. 2025-06-27
- Gorputzak eszenara" Sormen prozesuak eskubide kulturaletatik abiatuta topaketa. Kursaal Kongresu Jauregia. Donostia. 2025-11-13



Gordailua. Bilduma

Prebentziozko Kontserbazio Plana: Burututako lanak:

- Piezen kokapenaren eta erregistro intzidentzien berrikuspena.
- Artxiboko piezen azterketa: lehenengo fasea
- Artxiboaren azterketa eta berrantolaketa proposamena.
- Plagak Bildumako piezen berrikuspena eta gainazaleko garbiketa.
- Bilduma zaharberritzea

2025



Gordailua. Bisita gidatua

Ormaiztegiko San Andres eskolako LH5eko ikasleekin berrikutako Ondare taileraren osagarria. 2025ko ekaina.



segundo internacional "El hierro, patrimonio de los rines"



Gordailua. Burdina. Pirinoetako Ondare Nazioarteko topaketa.

"El compromiso y la implicación del museo Zumalakarregi en la puesta en valor, divulgación, promoción y dinamización del viaducto de Ormaiztegui" komunikazioaren aurkezpena.
Gordailua. 2025-.10-25



Humanidades y ciencia

Karlismaldia Euskal Herrian

Mikel Alberdi

3 diciembre - 17 diciembre

Aiete K.E.

Aieteko kultuetxea. Ikastaroa

Aieteko Kultur Etxeak antolatuta, "Karlismaldia Euskal Herrian: mitoak eta irakurketa historikoak" izeneko egile ikastaroa.
Donostia. 2025ko abendua



Kutxa fundazioa

Antonio VALVERDE
"AYALDE". "Zumalacárregui".
1966 obraren mailegua
MusealiaK gunean aurkezteko.
2024-12-12 / 2025-05-21

"Gipuzkoako kartografiaren katalogoa 1529-1936"
liburuaren aurkezpena
Zumalakarregi museoan.
2025-12-11

Erabiltzaileak





Erabiltzaileak

Museora etorritako 3.780 bisitariek XIX. mendea ezagutu eta gozatzeko aukera izan dute. Hauetatik gehienak Gipuzkoarrak izan dira, Euskal Autonomia Erkidegokoak jarraituz. Estatu mailan Kataluina eta Madrilgoak dira gehien bisitatzen gaituztenak. Atzerriko publikoa da gutxien bisitatzen gaituena eta hauek uda partean izan ditugu.


Museoko publikoak denboraldien arabera aldatzen da. Adibidez, ikasturtean zehar, eskola-taldeak dira gehien bisitatzen gaituztenak, eta hori ikastetxeek XIX. mendeko historiari egiten dioten azterketarekin batera doa. Hauei gehitu behar zaie museoak programatuta jardueretara etortzen direnak, helduen taldeak, edo eta banakakoak.

3.780

Guztira



Adin tartekak




Sexua




1.967
EMAKUME



1.813
GIZON



Azken urteetako garapena



671

Pertsona-kopurua taldeetan

3.109

Pertsona-kopurua banaka

Gogobetetze datuak

Orokorrean bisitarien gogobetetze maila oso altua da; museoaren lehen aldiz bisitatzen duten pertsona gehienek harridura eta miresmena adierazten dute erakusketa-diskurtsoaren edukiagatik eta egiten dugun lanagatik. Askok eta askok ez zuten espero horrelakorik.

Bestalde, azpimarratzekoa da urteetan zehar museoaren inguruan sortu den komunitatea, dela bertakoa, dela eskualdekoa, dela eskainitako programazioan interesa duena. Fidelizazio maila oso altua da.

Google my bussines profilak 4,7 izar ditu batazbesteko:

Museo ZUMALAKARREGI

4,7 ★★★★★ 146 reseñas ⓘ

Museo en Ormaiztegui



Guillermo Laguardia

6 reseñas • 0 fotos



★★★★★ Hace 22 semanas

Un bonito museo que te transporta al siglo XIX. Muy interesante todo lo que se expone en el museo, descubriendo también la figura de Miguel de Zumalakarregi. Muy interesante la documentación que se expone y Ainhoa de 10 (bikain), hace muy agradable el recorrido. Eskerrik asko Ainhoa.



Olatz Hidalgo

13 reseñas • 1 foto



★★★★★ Hace 15 semanas

Cristina nos hizo una visita guiada muy buena e interesante. Nos encantó la manera de explicar los acontecimientos, haciéndolo muy entretenido. Recomendando coger la visita guiada sin duda.

Zerbitzuak



Zerbitzuak

Arreta pertsonalizatua nahieran ematen da zerbitzu guztietan; liburutegia, bilduma, artxiboa, informazio puntua, banakako zein taldeko bisitariei.



LIBURUTEGIA

XIX. mendean espezializatua, aldi horretako bilduma bibliografiko joria du, eta gaur egungo historiografiaren azken berrietasunekin aberastuz doa.



BILDUMA

Museoaren bildumak Gerra Karlistetako pieza esanguratsuek osatzen dituzte: Tomas Zumalakarregiren eta haren familiaren objektu militar eta pertsonalak; garaiko armak eta uniformeak; numismatika eta prefilatelia; balio handiko funts dokumentalak, txostenak, aldarrikapenak, gai anitzeko epistolarioak; prentsa; olio-pinturak, akuarelak, grabatuak eta beste euskarri ikonografiko batzuk; funts bibliografikoak, lan biografikoak, zientifikoak eta XVIII., XIX. eta XX. mendeetako gai orokorrak; funts kartografikoak, planoak, mapak eta atlasak.




ARTXIBOA

4.000 dokumentu inguru ditu, eskuizkribuak eta inprimakiak, hainbat funtsetan sailkatuta. Horietako batzuk MuseoTIK webgunean kontsulta daitezke (Euskadiko museoen katalogo kolektiboa da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Politika Sailaren proposamen digitala).



MAILEGUAK

Urtean zehar jasotako mailegu eskaerak kudeatu. Besteak beste 1696an Tolosan argitaratutako Gipuzkoako Foruen Liburuaren zaharberritzea. Argitalpenaren mailegua San Telmo museoko "Ipuscua 1000 años. Ipuskuatik Gipuzkoara. 1025-2025" erakusketarako, ekainaren 29ra arte.



DOHAINTZAK

Dohaintzan eskainitako obra aztertu eta balioa duela egiaztatu ondoren, honen kudeaketa: erregistroa. Aurtengoen artean, besteak beste, Jose Mari Tudurik emandako uniforme karlista baten erreprodukzioa, Ormaiztegiko familia baten espata eta Donostiako familia baten garaiko argazkiak.



BISITA GIDATUAK

Hezkuntza sailak eskola taldeentzat antolatutako ibilbideez gain, museora datozen bisitariek eskatzen badute bisita gidatuak eskaintzen ditugu.



MUSEOA KANPOAN

Zumalakarregi Museoak urteak daramatza bere edukinak hainbat elkarte, eskola edo kultur guneetara zabaltzen. Ormaiztegira gerturatzeko zailtasunak dituztenak gure hitzaldi edo tailerrak beraien egoitzetara eramatea izaten dute helburua. Karlistaldiei buruzko hitzaldiez gain, XIX. mendeko beste hainbat gai jorratzen dituztenak eskaintzen ditugu.

Gertu Kulturako "Zubiak" programa.....



TURISMO-INFORMAZIORAKO GUNEA

Euskadi, Gipuzkoa eta Goierri eskualdeko informazio turistiko zabala eskaintzen duen harrera gunea. Nabarmentzekoa da Mutiloa-Ormaiztegi bide berdeari buruzko informazioa, familientzako orientazio-joko baten kit bat ere biltzen baitu. Iparraldeko Done Jakue Bideari buruz eskaintzen dena ere oso garrantzitsua da, barnealdekoaz ere ezaguna baita. Izan ere, museoa Beasain eta Zegama arteko 4. etaparen ibilbidean dago.



DENDA eta LIBURU-DENDA

Museoak liburu-denda xume bat du, eta bertan katalogoak eta beste argitalpen batzuk eros daitezke.

Museoa pertsona guztientzako

Gertu kultura programaren bidez, iGertu Kutura atariaren bitartez Kultur eragileak eta erakunde sozialak harremanetan jarri ditu. Bertan gizarte erakundeek kultur eragileak egiten ditzuzten berri eta partehartzea sustatzen du.

Museoarentzako aukera bikaina izan da urteetan zehar lan egin duen elkarteekin harremanak sendotzeko eta talde berriak ezagutzeko aukera izan du, Honekin bat, taldeekin lan egiteko formazio espezifikoak jaso ditugu, hala nola, "Museoak eta Alzheimer" buruzko formakuntza eta proiektuaren hasiera edota "Estigmatik gabeko kultura" formakuntza jaso dugu. Hauekin batera, bi proiektuei hasiera eman diegu: "Museoa eta Alzheimer" eta egoilarri egoitzetan "Gertu Zubiak". Non Petit de Meurvillek XIX. mendean marraztutako landara bilduma ezagutzeaz gain, hauen erabilera ezagutzeko aukera eskaintzen den.



gertu
kultura
inklusionarako
atea

[Informazio gehiago](#)

11

Talde

147

Partaide



"Museoak eta Alzheimer" programa

"Tomas eta Pankrazia: XIX. mendeko bikote bat bere objektu pertsonalen bitartez" tailerra.



Ehungintzako tailerra. Lore-brotxeak tailerra.



"Zubiak" programa

Goierriko eta Urola Garaiko eskualdeetako zahar egoitzetara eta adineko pertsonen eguneko zentroetara bertaratzeko jardura. Epea, 2025-09 / 2026-03

Kalitatea

Urte osoan zehar, museoak bere zerbitzuak hobetzen etengabe jarraitu du bisitarienezako esperientzia eskuragarria eta aberasgarria eskaintzeko. Alde batetik, bisitarien asebetetze-maila neurtzeko inkestak egiten dira; bestetik, eraikinen mantentze-plana ondarearen zaintza egokia bermatzen du.

Bisitarian asebetetzea

2020an (Covid-19) paperezko inprimakiak kendu ondoren, bisitariek galdeketa bat bete dezakete QR kode baten bidez. Gainera, jardueretan izena eman dutenek, eta baita ikasleek eta irakasleek Google Forms bidez ematen dute euren iritzia.

Mantenimendua

Urte osoan zehar, museoak bere instalazio eta sistemak jarraipen integrala izan du, bisitarien eta langileen segurtasuna eta egokitasuna bermatzeko. Kontrolatu dira klimatizazio- eta deshumidifikazio-sistemak, segurtasun-instalazioak (alarmak, kamerak, extintoreak), baita larrialdi-ekipoak, botikinak eta ticketeria eta inprimaketa sistemak ere. Horrez gain, hainbat intzidentzia erregistratu eta konpondu dira, museoko kalitatea, segurtasuna eta eraginkortasuna mantentzeko. Jarraian deskribatzen dira garatzen diren kalitate tresnak.



Komunikazioa



Komunikazioa museoaren ildo estrategikoekin lerrokatuta egin da, bai edukiekin, bai mezuekin eta baita tonuarekin ere. Dimentsio fisikoa eskualde ingurunean egin da batez ere.

Komunikazio digitalaren helburu nagusia museoa ikusaraztea, historia sustatzea eta kultur ondareari balioa ematea izan da.

Webgunea



[Bisitatu webgunea](#)

Zumalakarregi Museoaren webgune ofizialak Euskal Herriko XIX. mendeko historiari eskainitako kultur gune honen aurkezpen argia eta egituratua eskaintzen du. Lehenengo sarbidetik bertatik, webguneak bere helburu nagusia azpimarratzen du: XIX. mendea ezagutzeko eta gozatzeko erreferentziatzko zentroa izatea, eta, aldi berean, publiko mota askorentzako topagune irisgarri gisa kokatzea.

Orrialdearen diseinuak elementu grafikoak eta eduki bloke antolatutak uztartzen ditu. Azalean, "Gipuzkoa behin betiko", "Istorioak gaika" edo "Zumalakarregi Museoa familian!" bezalako atalak nabarmentzen dira, erabiltzailea webguneako eduki desberdinak arakatzera gonbidatuz.

Menu nagusiaren bidez, hainbat atal nagusitarantz sartzeko aukera dago, hala nola "Hasiera", "Zure bisita", "Museoa", "Hezkuntza eskaintza", "Artxibo aktiboa" eta "Irisgarritasuna", eta horien bidez informazio instituzionala, bisitarientzako datu praktikoak eta baliabide dokumentalak eskaintzen dira. Webguneak eduki dinamikoei ere garrantzia ematen die, bereziki ekitaldien agendari eta blogari, non bitxikeri historikoei, aldi baterako erakusketei, jarduera kultural eta hezitzaileei buruzko berriak argitaratzen diren. Gainera, "ZumaLAB" eta "MusealiaK" bezalako ekimenen bidez, hezkuntza eta dibulgazio digitaleko edukiak eskaintzen dira.

Webgunea hainbat hizkuntzatan dago eskuragarri, eta horrek irisgarritasuna eta nazioarteko irismena handitzen ditu. Laburbilduz, Zumalakarregi Museoaren webguneak informazio-, hezkuntza- eta kultura-sustapenerako plataforma integral gisa funtzionatzen du.


Soinu artxiboa

Atal honen osaketa **sail berriekin**. XIX.mendeko pertsonai desberdinen biografiak, gai historikoen kontakizunak, lagunekin elkarriketak eta beste aurki daitezke. 2025ean garatuta.



Sare sozialak

Sare sozialen bidez, Zumalakarregi Museoa bere jarduerak (solasaldiak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak, eta tailerrak), burutzen dituen proiektuak (migrazioak, hezkuntza, MusealiaK eta ikerketa), bildumak (ikusgai daudenak, online daudenak, artxiboan gordeta daudenak, jasotzen dituen dohaintzak, eta depositon jasotzen dituenak) eta erakusketen informazioa (inaugurazioak, egitarauak eta bitxikeriak) eta eskaintzen dituen zerbitzuak (museoa kanpoan, trenzubiko bisita, museoa familian eta informazioa puntua) ezagutzera ematen ditu.



Bisitatu gure sareak

Instagram


Jarritzaileak
1322


Hazkundera
295

Facebook


Jarritzaileak
1877


Hazkundera
0

Twitter


Jarritzaileak
463


Hazkundera
10

Youtube


Jarritzaileak
116


Hazkundera
23

Difusioa



Newsletterra

	
Harpideak	Bidalketak
269	19

Newsletterra komunikazio baliabide bat da, eta, bertan, Zumalakarregi Museoak newsletterari dagokion hilean egingo diren ekitaldien berri ematen du, baita museoaren webgunean eta sare sozialetan egin diren eta argitaratu diren edukien berri ere.

Whatsapp taldea

	
Harpideak	Bidalketak
47	40

Zumalakarregi museoak tokiko hainbat talde edo kolektiboekin erabiltzen duen komunikazioa baliabidea.

Hedabideak

Azken urtean zehar, Zumalakarregi Museoak harreman estu eta jarraitua izan du komunikabideekin, bai ohiko hedabideetan bai formatu digital berrietan duen presentzia sendotuz. Zabalkunde lan horren ondorioz, museoa Radio 3, Euskadi Irrati eta ETB2 bezalako erreferentziazko komunikabideetan agertu da, gure jardueren eta edukien irismena handituz. ETB1eko bi saio grabatu dira, 2026n argitaratuko direnak. Era berean, museoak ikusgarritasuna indartu du “Depa Runner”, “Guk Green”, “Viaja más por menos” eta “Exploraciones Txomin” bezalako eduki sortzaileekin egindako lankidetzaren bidez; haien kanalek aukera eman dute museoa publiko berrietara hurbiltzeko eta gure ondareari buruzko begirada garaikide eta anitza sustatzeko.

Hedabideetan inpaktua

EAEko, bertako eta estatuko hedabideetan inpaktua lortu da.

2025en, proiektu ugari izan dira hurrengo hedabideetan oihartzuna izan dutenak:

Bertako komunikabideak

Bertako hedabide aldizkari, egunkari eta irratan presentzia:



- Goierriko Hitza
- Goierri Telebista
- Noticias de Gipuzkoa
- Diario Vasco

EAEko hedabideak

- Egunkariak (Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Goierriko Hitza)
- Irratia (Euskadi Irratia)
- TV (ETB2: La Otra Cara, ETB1: SOS Kantak arriskuan)

Estatuko eta nazioareko hedabideak

- Radio 3



Beste hedabide batzuk

Eduki sortzaileak

- Depa Runner
- Exploraciones Txomin
- Guk Green
- Viaja más por menos



Muxika Egurastokia Kalea,
6, 20216 Ormaiztegi,
Gipuzkoa



+34 943 88 99 00



mzumalakarregi@gipuzkoa.eus



zumalakarregi.eus

